

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## EREÑOTZU KULTURA

### Udazken kulturala antolatzeko, bilera

Udazken Kulturala prestatzen hasteko asmoz, bilera irekia deitu dute gaur, Ereñotzun. Arratsaldeko 18:00etan izango da, Auzo Udalean. ||

## HERNANI AMHER

### Bilera gaur, jaialdi gastronomikorako

Irailaren 29an egingo du aurten, Amher elkarteak, nazioarteko jaialdi gastronomikoa. Eta hori prestatzen joateko, bilera irekia deitu du gaur, elkartearen egoitzan (Latsunbe, 42), arratsaldeko 18:00etan. Parte hartzeko gonbitea luzatu diete, herriko elkarte eta mugimenduei. ||

## HERNANI BITERI

### Ikastaroen zozketa, gaur eguerdian

Ostiralean bukatu zen epea, Biteriko ikastaroetan alde zuzenaren emateko; eta plazak baino jende gehiago dauden ikastaroetan, gaur egingo dute zozketa. Eguerdiko 12:00etan izango da, Biterin. Plaza dutenek, bihurtik irailaren 16ra egin beharko dute matrikula, Biterin bertan. ||

## HERNANI KARABEL

### Jaietako materiala eta txartelak, salgai

Irailaren 20an eta 21ean ospatuko dituzte Karabelgo jaiak, baina gaur bertan jarriko dituzte salgai, txartelak eta materiala. Auzo elkartearen erosi ahal izango dira egunero, 19:00etatik 20:00etara, honakoak: paella txartelak (3 euro), bingorako kartoiak (0,5 euro), kamixetak (7 euro) eta zapiak (3 euro). ||

## HERNANI 11/13 KASUA

### Autobusa, Bilboko manifestaziora

11/13 sumarioko auzipetuei elkartasuna adierazteko, manifestazioa egingo dute larunbatean Bilbon, 17:00etan La Casillatik. Eta joateko, autobusa jarri dute Hernanitik, 15:00etan Atsegindegin. Garinen eman behar da izena. ||

## HERNANI ERREMONTA

# Buruz buruko finalean da Barrenetxea

Semifinalean 30-25 nagusitu zitzaion Endikari, partiduari buelta emanda, bigarren erdian. Urrizaren kontra bilatuko du txapela.

BIGARRENEZ jokatuko du Endika Barrenetxea hernaniarrak, Buruz Buruko Txapelketa Nagusiaren finala. Baina pasea lortzeko, partidu haundia jokatu behar izan zuen, Endika Urrutiaren kontra: 30-25 nagusitu zitzaion, semifinalean.

Oso berdindua eta lehiatua izan zen partidua, eta markagailuari buelta eman behar izan zion hernaniarrak, bigarren erdian. Izan ere, 15-19ko abantaila zeukan saldiastarrak, partiduaren zati erabakigarria iristean. Jokoan oso paretsu ari ziren, baina sakez lau falta eginak zituen Barrenetxeak, eta hori aprobeztatu zuen Endikak, tartetxoa egiteko (11-16 eta 13-18).

### Sei tanto segidan, partiduari buelta emateko

Baina orduan hasi zen bere joko onena erakusten hernaniarra: hobeto sakatu, pelota jaitsi,

eta jokoan nagusitu. Horrela pasa zen, 15-19 galtzetik 21-19 irabaztera, sei tanto segidan eginez. Nola edo hala eutsi zion Endikak, 21na berdinduta, eta bi tantora aukerak mantenduz (26-24); baina ordurako gehiago zen hernaniarra, bai jokoan eta bai fisikoki: partiduaren hasieran jokoari emandako erritmo bizia sumatu zuen Saldiasekoak, bukaeran. Beste hiru tanto segidan lortu zituen hernaniarrak (29-24), partidua bere aldera eramateko. Guztira, 19 tanto egin zituen jokoan, eta beste zortzi saketik. Akatsak, aldiz, jokoan hiru besterik ez, eta saketik aipatutako lau faltak.

Orain, Javier Urriza txapel-duna izango du kontrario finalean, 2016koan bezala. Datoren larunbatean jokatuko du, Galarretan, pronostiko guztiak puskatzeko asmoz. ||



Endika Barrenetxea, garalpena ospatzen. Argazkia: Maialen Andres

## HERNANI MENDIRIZ MENDI

# Camillen Bidearen bi etapa, asteburuan

Ibilbidearen azkeneko bi etapak osatzeko irteera antolatu du Mendiriz Mendik, larunbatean eta igandean, Lescun eta Hecho bitartean. Gaur eta ostegunean eman daiteke izena, elkartearen.

ORAIN bi urte, 2017an, hasi zuten Mendiriz Mendi elkarteak kideek, Camillen Bidea izeneko ibilbide zirkularra. Eta asteburu honetan emango diote bukaera, azkeneko bi etapak (seigarrena eta zazpigarrena) osatzeko zita jarri baitute.

Horrela, Lescunetik Linzako

aterpetxera doan etapa egingo dute larunbatean. 18 kilometro dira, 1.275 metro gorantz eta 780 metro beherantz eginda; eta sei ordutan egitea espero dute. Igandean, berriz, Linzatik Hechora doana osatuko dute: 21,5 kilometro, 1.200 metro gorantz eta 1.600 metro beherantz.

Zazpi ordu inguru aurreikusituzte, bigarreneko.

### Izenematea, ostegunera arte

Joan nahi duenak, ostegunera arte dauka izena emateko, baina 25 lagunentzat dago tokia, gehienez. Elkartearen egin behar da, gaur edo ostegunean, ilun-

tzeko 20:00etatik 21:00etara. 75 euro dira bazkideentzat, eta 85 euro gainerakoentzat. Apuntatzeko momentuan, 40 euro ordaindu beharko dira. Prezioaren barne daude, bidaiari eta egun bat pentsio erdira. Goizeko 06:00etan abiatuko dira larunbatean, Atsegindegitik. ||

**gse**  
Asesoreak

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13  
Telfnoa: 943 55 02 54  
Faxa: 943 33 58 01  
gse@gseasesores.net

**Catalana Occidente**  
Aseguruak

BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani  
943 33 24 40

**TILIN \* TOLON**  
BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK KONTSULTAK  
943 55 56 94

Txirita, 10 - HERNANI

**Zorionak!**

Miren eta Praxku  
Maitasunez, zuen familia

62 urte elkarrekin  
1957-09-09 / 2019-09-09



**GAUR** Giro atsegina izango dugu, egunaren aurreneko zatian. Baina arratsalde edo iluntze partean, okerrera egingo du eguraldiak. Iparraldeko haizea sartuko da, behe-lainoak ugartuko dira, eta frekatzera egingo du. Euritara joko du, gauerako. **Min.11° / Max.21°**



**BIHAR** Eguraldi ezatsegina izango dugu bihar, ekaitz-giroarekin. Laino itunak nagusituko dira zeruan, eta zaparrada trumoiatsuak botako ditu. Etengabe egingo du euria, eta kazkabarra ere bota dezake. Haizea zakar ibiliko da, ipar-mendebaldetik. **Min.12° / Max.16°**



**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



## HERNANI ZIKUÑAGAKO JAIK



Atzoko arratsalde beroan, gustora ibilli ziren denak, apar festan. Jaletako argazkiak ikusteko: 'www.kronika.eus'

## Agur bero-beroa, aurtengo jaiei

Eguraldi ederra izan zuten Zikuñagan atzo, azkeneko egunaz gozatzeko.

FREXKOTIK hasi zuten atzoko eguna Zikuñagan, zerua garbi zegoen arren; baina arratsaldeko apar festari laguntzeko edo, eguzkiak gogotik berotu

zuen arratsaldean, eta sekulakoa izan zen festa txuria. Hori baino lehen, eta paelada jendetsuaren aurretik, saltoka, jolasean eta marraz-

kiak eginez aritu ziren haur eta gaztetxoak, goiz osoan zehar; eta sukaldako mantala jantzita helduak, bakailu goxoena prestatzeko lanetan. ||

## HERNANI ELKARTASUN ASTEBURUA



Kronoeskaladako partehartzaileak, probaren ondoren.

## Ander Amonarriz azkarrena, Kronoeskaladan

26 partehartzaile izan ziren Elkartasun Pedalkadak ekimenean. Taldeka, Iñigo Esnaolak, Jon Erdoziak eta Aitor Ortizek lortu zuten denbora onena.

KRONOESKALADA jokatu zuten larunbat arratsaldean Hernanin, Ibaiondo poligonotik Plazara, Elkartasun Asteburuaren barruan. Guztira, 26 partehartzaile elkartu zituen, Elkartasun Pedalkadak ekimenak.

Eta azkarrena, Ander Amonarriz hernaniarra izan zen. 5:22 denboran osatu zuen ibilbidea, Ander Uzkudun bigarrenak baino minutu erdi azkarrago (5:51). Mattin Sanzberrok

osatu zuen podiuma (6:00), hurrengo biak gertu zituela: Jon Iruretagoiena (6:02) eta Lander Ibarburu (6:09). 11 lagun aritu ziren, bakarkako proban.

Beste 15ak, taldekako proban aritu ziren, sei taldetan banatuta. Horien artean, Iñigo Esnaolak, Jon Erdoziak eta Aitor Ortizek lortu zuten denbora onena (6:28).

Partehartzaile guztiek izan zituzten pintxoak, eta sagardo

eta garagardoak bukaeran; eta sari berezia jaso zuen Amonarrizek: Imanol Miner presoak eskuz egindako paretako erlojua eman zion Elias anaiak. Pineda harategiaren hainbat produktu ere zozketatu ziren.

«Primeran ateratu da, ekimen polita bezain gogorra. Elkartasuna adierazteko hamaika modu daude, eta gaurkoan pedalei eraginez egin dugu», adierazi dute antolatzaileek. ||

## HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

### Euskara Ari Duri segida emateko, bilera bihar

Biterin izango da, 19:00etan hasita. Irekia da, eta interesa duten guztiak gonbidatu dituzte.

SEGIDA eman nahi dio Dobera Euskara Elkarteak, udazkenetik aurrera, *Baietz Hernanik!* egitasmoak utzitako «arrasto politari». 2018 urtean zehar antolatu zen, Euskara Ari Duren baitan, herrian euskaren erabilera indartzeko. Eta hemendik aurrerakoa, «ez da iazko planteamendu bera izango, baina piztutako su txikiari eutsi nahi diogu», azaldu dute Doberatik.

Horretarako, bilera irekia deitu dute bihar, arratsaldeko

19:00etan hasita, Biteri kultur etxean. Gainera, Euskaraldia 2020an ere «herrian txertatzeko modua» egin nahi dute, iaz Euskal Herri mailan antolatu zen ekimenak, datorren urtean bigarren kolpea izango duela eta.

«Honetaz guztiaz aritzeko eta plana zirriborrazteko antolatu dugu biharko bilera. Irekia izango da, eta gonbidatu nahi ditugu gaian interesa duten herritar guztiak», luzatu diete deia, hernaniarrei. ||

## HERNANI KAXKOA

### 'Soinu magikoak' tailerra, urritik

Urriaren 1ean hasi eta Gabonetara arte, *Soinu magikoak* tailerra antolatu du Kaxko elkarteak, musika-estimulazio goiztiarra lantzeko. Asteartero izango dira saioak, goizeko 10:45etatik 11:45etara, Biteri kultur etxean; eta izenematea zabalik dago: 608 193 701 telefonora deituta, [donostia@musikanaiz.com](mailto:donostia@musikanaiz.com) helbide elektronikora idatzita, edota [www.musikanaiz.com](http://www.musikanaiz.com) webgunearen bitartez. ||

## ASTIGARRAGA IKASTAROAK

### Ikastaroetan izenematea, irailean zehar

Gaur zabalduko dute epea, kultur etxean, hainbat ikastarotan izena emateko: Txi Kung, dantza latinoak, yoga, jostintza edota egur-taila. Urriaren 1ean hasi, eta ekainaren 12ra bitarte izango dira denak. Astigar dantza taldeak, berriz, egun zehatzak jarri ditu, euskal dantzen ikastaroan apuntatzeko: irailaren 18an eta 19an, 19:00etan elkartearen lokalean (Santio zeharbidea, Mirasol behea). Eta zita konkretuak jarri ditu Astigarte elkarteak ere, pintura eta marrazketa egin nahi dutenentzat: irailaren 21ean eta 28an eman beharko da izena, 10:00etatik 13:00etara kultur etxean. ||

## EREÑOTZU IKASTAROAK

### Yoga eta aerobikerako, aste honetan

Urriaren hasita, yoga eta aerobik ikastaroak antolatu dituzte aurten ere, Ereñotzun. Astearte eta ostegunetan izango da yoga, arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara; eta astelehen eta asteazkenetan aerobik, 17:30etatik 18:30etara. Bietarako, gaur bertan zabalduko dute izena emateko epea, eta ostiralera bitarte izango da aukera. Auzo Udalean egin behar da. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE enpresak HIRU TELEOPERADORA LANPOSTU bete behar ditu.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta frantsesa eskatzen dira. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

**LOGIKALINE enpresak INFORMATIKO-PROGRAMADORE lanpostua bete behar du.** Lana Abaltzisketan egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Lanaldi osoa. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943318606.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**